


AhoBizi / BelarriPrest ekimenaren balorazioa



Dokumentu honetan Informatika Fakultatean 2017-18 ikasturtearen hasieran egin zen *AhoBizi / BelarriPrest* ekimenaren balorazio xume bat jaso nahi da. Ekimen horren helburu nagusia gure eguneroko ohituretan euskararen erabilpena bultzatzea da, eta gure inguruko hainbat herri eta auzotan ([Lasarte-Oria](#), [Erreterria](#), [Intxaurren](#), [Altza](#)...) urteak daramatzate jada horrelakoak antolatzen. Euskararen erabilpena sustatzea bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu fakultatean, batez ere gurekin ikasten hasten diren ikasleentzat, beren artean, eta fakultateko beste kide guztiekin ere, harreman berriak egiten hasten direlako.

Laburki esanda, ekimenaren ideia nagusia da fakultateko kideek soinean txapa bat eramatea, tarte batez (24 ordu, astebete...), euskararekiko duten jarrera adierazteko: *AhoBizi* (euskal hiztun modura identifikatzen den pertsona) edo *BelarriPrest* (euskaraz hitz egiten zaionean ulertzen duen pertsona).

Gure fakultatean konpromiso hori ikasturtearen 3. astean hartzea proposatu genuen, irailaren 25etik 29ra. Txapa eskuratzeko fakultateko lankideei jakinarazi genien nora jo zezaketen, eta ikasleengana iristeko aurkezpen txiki batzuk antolatu genituen talde guztietan, ikasle boluntario eta Euskara Batzordeko kideren baten eskutik. Lehenengo mailan “Berdinen Arteko Tutoretzan” parte hartzen duten ikasle-tutoreek egin zuten aurkezpena. Ekimenari atxikimendua erakusteko, fakultateko webgunean galdetegi bat ipini genuen, eta hura betetzeko eskaria egin genuen.

Ekimenaren balorazioa egiteko garaian, Euskara Batzordeko irakasle eta administrazioko langileen ordezkariak diren kideen iritzia ez zen oso positiboa izan, ekimenaren asteak irauten zuen bitartean jaso:

- “... Sentsazio arraroa... ematen du ez dela ezer gertatzen...”
- “... lankide ahobiziek ez dituzte soinean eramaten... ikasleek estutxean...”
- “Sentsazio pobrea... Txaparik? ez ikasleak, ez gertuko irakasle euskaldun batzuk, ez ikerlariek, ...”
- “... lankideen artean ikusten dut ez dela ezer aldatu. Ahobizi txapa eraman ala ez, betiko moduan... kontzientzia falta handia...”


Ikasleen ordezkaria den kidearen aldetik, berriz:

- “Nire inguruan euskaraz aritu gara, eta egia esanda gazteleraz hitz egiten ikusten nituen pertsona batzuk euskaraz mintzatzen ikusi ditut ...”
- “... nahiz eta ez izan arrakasta handia, egun hauetan jendea euskaraz ari dela gehiago bere lagunekin fakultatean.”

Iritzi bakunak besterik ez dira baina agian badira zerbaiten isla.


Balorazio kuantitatibo bat egiteko geneukan aukera bakarra zera zen: atxikimendua egiteko galdetegiaren datuak erabiltzea. Jaso genuen informazioaren arabera, 175 pertsonak egin zuten atxikimendua zuzenki eta, berriz, jakin badakigu txapa dezente gehiago jaso zirela.

Ditugun datuekin zenbaki batzuk atera eta ondoko grafikoak prestatu ditugu. Lehenengo honetan adierazten da, balio absolutuan eta ehunekotan, ekimenean parte hartu dutenen artean (atxikimendua egin zutenen artean), zenbatek egin zuten AhoBizi gisa eta zenbatek BelarriPrest gisa. Horrela, ia % 83 izan zen AhoBizi eta % 17 BelarriPrest.




Hurrengo grafikoan, ezker aldean, era batean edo bestean parte hartu dutenen banaketa ikus daiteke, baina kolektiboaren arabera (ikus koloreen legenda), hau da, parte hartu duen % 60 ikasleak izan ziren; % 7 AZPkoak, % 19 irakasleak, % 7 ikertzaileak eta % 6 beste zerbaitetan aritzen direnak (garbitzaileak, kopistegikoak, tabernakoak...). Eskuin aldean, kolore bereberekin (baina gardenago) kolektiboen arteko banaketa adierazi dugu, 2016ko memoriaren erroldaren arabera ([ikus hemen](#)). Hau da, fakultateko kideetatik %72 ikasleak dira, %3 AZPko langileak etab. Ikusten denez, bi banaketek antza handia dute; beraz, kolektibo guztiek era berdintsuan parte hartu dutela esan genezake.

Hala ere, kolektibo bakoitzean, zenbat izan dira AhoBizi eta zenbat BelarriPrest? Hori hirugarren grafikoan ikusi ahal izango dugu.




Hurrengo grafikoan kolektibo bakoitza AhoBizi eta BelarriPresten artean nola banatu den ikus daiteke. Horrela ikusten da, behetik hasita, kolektiborik handiena, ikasleena, lehen ikusitako proportzio berean mantentzen dela: % 83 AhoBizi *versus* % 17 BelarriPrest. AZP, irakasle eta ikertzaileen kolektiboetan AhoBizien parte hartzea zertxobait handiagoa izan da, % 90en ingurukoa, edo % 100ekoa ikertzaileen kasuan. Beste zerbaitean aritzen direnen kasuan, berriz, ehuneko handiagoan izan dira BelarriPrest izan direnak (% 70) AhoBizi izan direnak baino (% 30).



Eta azkenean, erantzun nahi izan dugun galdera honako hau izan da: Kolektibo bakoitzean, direnetatik zenbatek parte hartu dute, era batean edo bestean? Hurrengo grafikoak jasotzen du horren erantzuna kolektiboka. Horrela atentzioa ematen du beste zerbaitean aritzen diren guztien % 100ak parte hartu zuela. Ziur aski, hau lotuta egongo da kide hauek ekimenaren berri jaso zuten

erarekin. Izan ere, gehienek ez dute erabiltzen posta elektronikoa lan-tresna gisa eta, talde nahiko txikia denez, era pertsonalizatuan jakinarazi zitzaizkien ekimenaren nondik norakoak, baita atxikimendua une berean egiteko gomendioa eman ere.

Hurrengo parte-hartze handiena izan duen kolektiboa AZPkoena izan da, kolektiboaren erdia gaindituz, % 54,2 hain zuzen. Ikasleak eta ikertzaileak % 20an geratu dira; nahiko ehuneko baxuan esan genezake. Eta azkenik, irakasleena % 34,7koa izan da. Azken hau ere harritzekoa da, jakinda irakasleagoaren erdia baina gehiago elebiduna dela ([ikusi hemen](#)).



Azkenean, jasotako iritziak eta zenbakiak ikusita, ekimena ez zela oso arrakastatsua izan esan genezake. Egia da zenbakiak (hemen aurkeztutako grafikoenak) erlatibizatu egin behar direla; izan ere, parte hartu zuten guztiek badakigu ez zutela atxikimendua egin. Askoz gehiago izan ziren txapa hartu zutenak. Hala ere, txapa hartzeak ez du esan nahi ekimenaren konpromisoa hartu zutela. Beraz, zein izan da parte hartzea? Oso zaila da balorazio objektibo bat egitea.

Gure balorazioa, hala ere, gure sentazioen arabera, izan da ekimen positiboa izan dela. Kalterik ez duela ekarri, zerbait ekartzekotan, gutxi bada ere, positiboa izan dela. Sikiera arrazoi batengatik edo besterengatik, gaia atera da; ikusgai azaldu da; fakultatean gure egunerokotasunean euskararen erabilera nolakoa den eztabaidagai izan da, neurri batean edo bestean. Gu, Euskara Batzordetik, animatuta gaude horrelakoak gehiagotan egiteko, are gehiago orain, Eusko Jaurlaritzatik hitzarmen bat (euskaraldia.eus, [Habe](#)) bultzatzen ari dela, 2018ri begira, erkidegoko udaletxe guztietan horrelako ekimenak ezartzeko, Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan.

2017ko abendua

Informatika Fakultateko Euskara Batzordea